

# Lan gutxiago egitea denok lan egiteko//Trabajar menos para trabajar todos y todas



# SÍ A LOS RECORTES DE LA JORNADA LABORAL



ABENDUAK  
**26**  
DICIEMBRE

**NO FALTA TRABAJO  
SOBRAN HORAS**

TRABAJAR MENOS PARA TRABAJAR TODOS Y TODAS



**KONTZENTRAZIOA**

**12 ETAN PARLAMENTU AURREAN**

(Más abajo en castellano)

Langabezia iritzi-inkestetan gizarte-arazo kezkarriena bezala agertzen da. Baita politikarien adierazpenetan ere, guzti hau konpontzeko neurri zuzenik hartzen ez bada ere. Helburua beti ekonomia suspertzea da, eta langabezia murriztea, berriz, suspertze horren zeharkako ondorio gisa lortzea espero da.

Baina ekonomia suspertzea ez da posible, ezta desiragarria ere, baliabideak agortzen eta klima eta ingurumen-arazoak areagotzen ari diren egoera batean. Hori gertatuko den kasu hipotetikoan, teknologia aplikazio oso azkarrak eta produktibitate-hazkunde etengabeek langabeziaren murrizketan hazkundearen eragina askoz txikiagoa izatea eraginen lukete.

Hala, "krisi" une bakoitzean, jarduera ekonomikoaren gutxitzeak, langabeziari eragiten dio zuzenean, alabaina, suspertze-uneetan ez da langabezi xurgapen antzekorik gertatzen, eta, beraz, egiturazko langabezia hazi egiten da. Hurrengo desaktibazio-aldian egiturazko langabeziaren zifra okerrago horietatik abiatuko gara, eta gauzek okerrera egiten jarraituko dute.

Nafarroan langabeziaren zifrak konparatiboki ez dira beste autonomia batzuetakoak bezain txarrak, baina hori ezin da jarduerarik ezaren aitzakia izan. 2007az geroztik, Nafarroan langabezia 30.000 eta 50.000 pertsona artean mugitzen ari da, % 10 eta ia % 20 bitartean. Onartu ezin ditugun zenbaki iraingarriak, eskandalagarriak, eta eredu sozial bidegabe baten adierazgarriak direnak, bizitzak murrizten dituen eta pertsona asko bide bazterrean uzten dituen, nahiz eta kontrakoa aldarrikatu. Langabeziak neurri zuzenak behar ditu.

Langabeziaren aurkako neurri zuzen bakarra Nafarroako Gobernuaren aldetik 2014ko maiatzean hartu zen, Administrazioan enpleguaren banaketa sustatzeko neurriak jasotzen zituen foru-dekretu bat onartuz. Ez zen anbizio handikoa, baina urrats bat zen. Oro har, kontua zen lanaldi-murrizketa bati heltzen zioten pertsonen, zegokien soldata-murrizketa baliokidearekin, Administrazioak konpromisoa hartzen zuela haiek ordezkatzeko eta gizarte-segurantzako kotizazioari % 100ean eusteko. Enplegu ez oso egonkorra sortzen zen, eta, bere garaian, neurri hori ez zitzaigun nahikoa iruditu, baina izugarria da ordutik ustez aldaketaren aldeko gobernuek eta gobernu aurrerakoiek langabeziaren aurkako neurri aktiboetan urrats bakar bat gehiago eman ez izana.

Horregatik, 2014ko 39. foru-dekretu hura hobetzea eta zabaltzea proposatzen dugu.

- Lanaldia murrizteko moduak dibertsifikatuz.
- Galera ekonomikoen zati bat diruz lagunduz, batez ere soldata txikiagoa duten kategoriena.
- Plana enpresa pribatura hedatuz, beharrezko aldaketak eginda.

Borondatezko neurriak baino ez dira, eta langileek baliatu ahal izanen dituzte edo ez. Epe ertainean langile guztiei luzatu beharko litzaieke, eta urratsak eman beharko lirarteke norabide horretan, neurri horiek arautuko dituzten legeen edota negoziazio kolektiboaren bidez.

100 urte baino gehiagoko 8 orduko lanaldiaren ondoren, eredu ekonomiko eta



laboral hau birpentsatzeko beharra iritsi da, desberdintasunak areagotu baino egiten ez dituen, emakumeak sartu dituen klase ezegonkor berri batean bihurtzeko, erritmoak inposatzen dizkiguna eta estali ezinezko premiak sortzen dituen. Geldiarazi beharra dago.

Enplegua banatzearen alde egiten dugu, langabeziarekin amaitzeko modu eraginkor eta solidario bakar bezala, eta, aldi berean, bizi-kalitatea hobetzeko, beste jardura batzuetan eman daitekeen lan-denbora libre utziz, hala nola zainketak eta zereginak partekatzean, gizarte-partaidetzan eta errealizazio pertsonalerako beste edozein modu. 70 urtera arte lana egiten nahi gaituzte, aurten Nafarroan gazteen artean %31ko langabeziara iritsi garenean.

Gobernuei langabezia geldiarazteko lan-banaketatik, aparteko orduen desagertzetik eta erretiro-adina aurreratzetik soilik pasa daitezkeen neurri zehatzak eskatzen dizkiegu. Borroka gaitezen 30 orduko astearen alde, egunean 6 orduko lanaldiaren alde.

Lan gutxiago egin dezagun guztiok lan egiteko.

Zatoz abenduaren 26an eguerdiko 12etan CGT-LKN sindikatuak Parlamentu aurrean deitzen duen kontzentrazioa.



Abenduak 26 de diciembre. 2021.

El paro aparece en las encuestas de opinión como el problema social más preocupante. También en las declaraciones de los políticos, sin que se tomen

medidas directas para solucionarlo. El objetivo siempre es la reactivación económica, mientras que la disminución del paro espera obtenerse como efecto indirecto de esa recuperación.

Pero la reactivación económica no es posible ni deseable en una situación de agotamiento de recursos y de incremento de los problemas climáticos y medioambientales. En el hipotético caso de darse, la rapidísima tecnologización y los incesantes incrementos de productividad harían que la repercusión del crecimiento en la disminución del paro fuera mucho menor.

Así, en cada momento de "crisis", la disminución de la actividad económica repercute directamente en el paro, sin embargo, en los momentos de reactivación no se da una similar absorción del desempleo, con lo que el paro estructural crece. En el siguiente periodo de desactivación partiremos de esas peores cifras de paro estructural y las cosas seguirán empeorando.

En Navarra las cifras de paro son comparativamente menos malas que las de otras autonomías, pero eso no puede servir de excusa para la inactividad. Desde el 2007 el paro en Navarra viene moviéndose entre 30.000 y 50.000 personas, entre el 10 y casi el 20%. Cifras indignas, escandalosas, que no nos podemos permitir y significativas de un modelo social injusto, que recorta vidas y deja a muchas personas en la cuneta, por más que proclame lo contrario. El paro necesita medidas directas.

La única medida directa contra el paro del Gobierno de Navarra se tomó en mayo de 2.014, aprobando un decreto foral con medidas para fomentar el reparto del empleo en la Administración. No era muy ambicioso, pero era un paso. Se trataba en líneas generales de que a las personas que se acogiesen a una reducción de jornada con equivalente disminución salarial, la Administración se comprometía a sustituirle y mantener su cotización de la seguridad social al 100%. Se creaba empleo poco estable y en su momento esa medida nos pareció insuficiente, pero resulta clamoroso que desde entonces gobiernos supuestamente del cambio y progresistas no hayan dado un solo paso más en medidas activas contra el paro.

Por eso proponemos que se mejore y amplíe aquel decreto foral 39 de 2014

- Diversificando las formas de reducción de jornada.
- Subvencionando parte de las pérdidas económicas, sobre todo de las categorías con salario menor.
- Extendiendo el plan, con las modificaciones necesarias, a la empresa privada.

Son medidas de carácter solo voluntario a las que los y las trabajadoras pueden acogerse o no hacerlo. A medio plazo habría que extenderlas a toda la plantilla, dando pasos en esa dirección mediante leyes que las regulen y/o la negociación colectiva.

Después de más de 100 años de jornada de 8 horas toca repensar un modelo económico y laboral que no hace sino acrecentar las desigualdades, que ha incorporado a las mujeres para convertirlas en una nueva clase precaria, que nos impone ritmos y crea necesidades imposibles de cubrir. Es necesario frenar.

Abogamos por el reparto del empleo como única forma eficaz y solidaria de acabar con el paro y, a la vez, mejorar la calidad de vida, liberando tiempo de trabajo que puede dedicarse a otras actividades como compartir cuidados y tareas, participación social y toda otra forma de realización personal. Nos quieren trabajando hasta los 70 años cuando este año hemos llegado en Navarra al 31% de paro entre las personas jóvenes.

Exigimos a los gobiernos medidas concretas para frenar el desempleo que solo pueden pasar por el reparto del trabajo, la desaparición de las horas extras y el adelanto en la edad de jubilación. Luchemos por la semana de 30 horas, por la jornada de 6 horas diarias.

Trabajemos menos para trabajar todas.

Acude a la concentración que CGT convoca en 26 de diciembre a las 12 del mediodía frente al Parlamento.